

Ez administralgo eta lantegietan bakarrik, gure herrietako plazetan, kaleetan, ostatuetan... nagusitzen ari da erdara. Beti euskaraz bete diren funtzioak ere erdaraz egiten hasiak dira.

Gaur dagoen bezala zatikaturik, marko minimorik ez dagoela nahiko garbi dago. Zazpi probintzientzako egon behar luketen lotura minimo horiek ez daudelako. Minimoen azpitik ari gara.

«Euskararen sustituzio prozesoa ez da gelditu»

Iñaki URIA
Pello ZUBIRIA

Iñaki Larrañaga soziologoarekin berbatan

Euskararen arazoan inguruan hainbat lan eta material egina delarik, lehenengo LARRUN honetarako ikuspegi orokor bat ematea pentsatu dugu. Eta horretarako pertsona egoki bat izatekotan, Iñaki Larrañaga. Itsasondoko apaiz ere baden soziologo honek euskararen inguruko azterketa asko eginak ditu SIADECO ekipoarekin, eta azken denborotan Tolosa, Irun, Usurbil eta abarretan. Hizkuntzaren diagnostiko bat egiten saiatu gara, eta irtenbidearen marko bat marrazten.

LARRUN.— Elkarrizketa hau kuantifikatzeko arazoetatik hasia proposatzen zenuen zuk. Hori entzun eta Luis Nuñezen eta Ruiz de Olabuenagaren artean izandako polemika hura datorkiguru burura, euskal hiztunok zenbat garenari buruzko eztabaida hura.

Iñaki Larrañaga.— Polemika hori egia esan antzu samarra ikusten dut. Zenbat garen jakin nahi izatea bidezkoa iruditzen bazait ere. Jakina da euskara zenbat jendeke ezagutzen duen edo hizkuntza aldeetik daturik jasotzen zuen errolda edo

zentsorik hemen orain arte egin ez zenez, hor estimaziotan mugitzen ginela denok. Eta estimazioak ziren lehendik ezagutzen genituenak: Irizarrenak, Siadecok egindakoak, lehenago Bonapartek egindakoak zer esanik ez, estimazio mundu bat zen.

1981. urtean egindako Zentso edo Erroldan bildu ziren datuen ondoren, interes politikoaren arauera edo, zifrak puztu egin ziren, euskaldungoaren zifra den baino haundiagoa agertu nahirik edo. Eta puzteko sistema oso erreza izan zen: ONGI dakitela erantzun dutenei ZERBAIT dakitela diotenak erantsi eta guzti horiek euskaldun osoak balira bezala kontatu.

Baina mundutxo horretan mugitzen garenok badakigu zifrak gutxi gora behera nondik nora dabilzan: Komunidade Autonomoan euskara dakiten edo normalki ezagutzen dutenen zifra milioi erditik ez dela pasatzen, gero beste ehun mila edo inguru hori daudela Nafarroa eta Iparraldean. Inguru hori da ateratzen dena euskara ongi hitzegiten dutela esan dutenekin.

Arazoa, ordea, ez dago kopuruan. Alde batetik, hizkuntza baten bizia hitzunen kopuruaren baitan ez dagoelako. Ederki azaltzen du hori Sanchez Carrion «Txepetx»ek, zera esaten duenean: hizkuntz

komunitate baten etorkizuna ez dago hitzunen kopuruaren baitan, baizik eta hizkuntz komunitateak alde batetik osotasunik baduen ala ez, hizkuntz funtzio guztiak betetzen dituen ala ez alegia, eta beste aldetik ea ba dagoen hizkuntza horretan funtzionatzen duen berak «nucleo pensante» deitzen duen hori, bizi osoa euskaraz egiteko hainbat produzitzen duen nukleo bat alegia. Orain artean gure arteko «nucleo pensante» horrek erdaraz funtzionatu du salbuespen batzuek ez beste.


Eta beste aldetik, arazoa ez da hizkuntza ezagutzea edo ez ezagutzea, erabiltzea da kontua. Beste muturrera joaten bagara, hor dago Irlandako kasoa. Badirudi han biztanlegoaren ehuneko 75 edo 80k gaelikoa jakin badakiela. Zein mailatan erabiltzen da eguneroko bizitzan? Ehuneko bostera ere ez omen da iristen.

Gipuzkoan jaso ditugun datuen arauerara, zenbat erabiltzen den kaleetan, enparantzetan, erosketetak egiterakoan, kontsultetan, erakunde ofizialetan. lan-tegietan eta abar, goitik behera jaisten da. Gipuzkoari dagokionez, dakitenen erdiek ere ez dute euskararik erabiltzen.

L.— Zenbat garen jakiteak ere bere garrantzia ukaezina badu, zalantzarik gabe. Komunitate Autonomoan bostehun bat mila euskal hiztun omen gara. Nondik ateratzen dira zenbakiak, batzuek bat eta besteek beste bat ematen dute eta.

I.L.— Gure kasuan bederen, kopurua erabakitzeko erreferentziak hauek dira: batetik zentsoan ongi dakitela diotenak, eta horiek 450.000 inguruan dira Komunitate Autonomoan. Zenbait herritan azterketa soziolinguistikoak egin ditugu eta horietan frogatu ahal izan dugu zentsoan ongi dakitela dioten kopuru hori nahiko segurua dela.

Beste kontu bat da ZERBAIT dakitela dioten 250.000 pertsona horiena. Izan ere, zerbait dakitela dioten kopurua nahiko anbiguo dirudi: ez dakigu zerbait dakitela dioten horiek nondik datozen eta nora doazen, ea euskaratik erdarara doazen ala erdaratik euskarara datozen, ala hor planto eginak dauden. Nork erantzun du zerbait dakiela? Donostiako hirian, esate baterako, zerbait dakitela dioten kopurua ongi dakitela diotenena baino haundiagoa da. 38.000 edo. Nortzuk dira hauek? Euskaraz jakin eta galtzen joan direnak, edo euskarara zerbait hur-



«Sanchez Carrion 'Txepetx'ek dioenez, hizkuntz komunitate baten etorkizuna ez dago hiztun kopuruaren baitan, baizik eta hizkuntz komunitateak alde batetik osotasunik baduen ala ez, hizkuntz funtzio guztiak betetzen dituen ala ez alegia.

biltzen hasitakoak, edo batere ez dakiela esateak lotsa ematen dion jendea?

L.— Esan izan duzue komeni litzatekeela gaurko euskaldungoa ongi eza-gutzea, egiten ari garen lan guztien emaitzak gero kuantifikatu ahal izatekotan. Asko kostako al litzaeiekerakunde publikoei euskal hiztunen kopurua eta euskararen erabilpena Euskal Herri mailan ongi zehaztea?

I.L.— Kopurua ezagutzearena normalean zentso eta eroldarekin zehaztu ohi da. Gertatzen dena da hobeto egin behar direla galderak, galdera egokiago batzuekin eratzun garbiago bat lortu. Zentso normal bati, horrek ez lioke koste adizionalik erantsiko.

Baina zentsoa beti balorapen subjektibo osatua egoten da, hemen eta mundu osoan. Baina egoera objektiboago aztertzeko, nahikoa litzateke Euskal Herri mailan bi mila edo bi mila eta bostehuneko muestra hartu eta euskararen eza-gutza maila ongi zehaztea. Horren kostua, zentso bat kostatzen denaren al-

dean, txikieria bat baino ez da.

Gauza horiek jadanik argi eta garbi egon beharko lukete. Eta pentsa orain arte euskaraz dakitenez mintzatu garela.

Irakurtzen eta idazten zenbatak dakien hasten bagara jakin nahian, are eta iluntasun haundiagoa dago. Idazten eta irakurtzen ongi dakitela diotenen kopuruan ongi hitz egiten dutenen ehuneko 50-60 inguru horretan dabil. Nortzuk dira horiek? Badirudi gehienbat gazte jendea dela, eta eskolatua, baina... Baina galderaren formulazioa bera da hor traketsa, mailaketa minimo bat egin gabe, oso konplikatu izango omen zelako. Eta horren ondorioa da datuak interpretatu ezina.

Galderak hobeto planteatuz gero posible duzu zehaztea euskaraz erdaraz bezala irakurtzeko gai zeintzuk diren... Lehenera itzuliz, zerbait dakitela diotenen artean, ez zen galdetu ea beren jatorrizko hizkuntza zein zen; hori jakinez gero nondik datorren jakitea posible da, ea

euskaraz galtzen ari den ala euskarara datorrena den.

L.— Esan daiteke maniobra baten barruan kokatua zegoela azterketa hura. «Gu ere zerbait ari gaituk, eta begira azken urteotan zer lortu den», ilusioa sortu jendeari, lehen hain gutxi ginela esaten bazen orain kopuru haundiago bat azalduz.

I.L.— Gero estatistikak garbi etorri dira, baina inkesta hura argitaratu zenean piska bat taktika bezala erabili zela uste dut. «Uste baino gehiago gara eta gainera azken urteotan gehiagotu egin gara» erakusteko. Zalantzarik gabe.

Ilusioak egitea alde batera utzi behar da, eta egoerari buelta eman nahi bazaio diagnosis on bat egin behar da.

Beste alde batetik, ilusioak sortze hori planteatu daiteke beste neurri batzuk hartu eta jendeak onartu ditzan giroa sortzeko bezala. Eta hori engainu bat da nere eritziz, zentzu honetan: azterketa askok erakutsi dute jendearen hizkuntz jokaerak ez daudela motibazio edo jarra horien baitan, edo ilusioen baitan, horiek erabilpenerako ezer gutxi balio izaten dute. Erabilpena funtsean hizkuntza baten ezagupideak mugatzen du.

Eta zeharo artifiziala den hizkuntz egoera batera iritsi gintezke: ilusio bat sortu, «euskal gizarte batean bizi gara», inguru euskaldun batean bizi bagina bezala, eta bitartean euskaldunetik ezer ez duen gizarte batean bizitzea, goitik behera erdaraz funtzionatzen duen batean. Horrela ez goaz inora.

L.— **Diagnosis batetik hasiko gara orduan. Eta diagnosis hori egiteko kontutan hartu behar diren elementu nagusietatik.**

I.L.— Diagnosis bat egiterakoan lehendabizi ezagupidearen arazoa dago; mundu hori oso konplexua da eta mailaketa oso zehatza egin beharko litzateke horretan, ezagupenaren prozesuek nola funtzionatzen duten ikusteko. Jatorriz euskal hiztunak direnak eta erdaldunak oso mekanismo ezberdinetan mugitzen dira, esate baterako: euskalduna hitz egitetik hasten da eta denborarekin agian irakurri eta idaztera helduko da. Erdararik datorrena berriz irakurtzetik inguratzen da gehien bat, hitz eginaz bukatzeko.

Gure gizarteko hiztun maila ezberdinek ezagutu behar dira. Jatorriz euskaldun izan eta hizkuntza trakestu egin zaien jendea, erdaldun jaio eta euskarara iritsi

Akatsik haundiena planifikazio eza da. Irakaskuntza munduan esate baterako jenderik ez zegoela esan digute, eta orain irakasle euskaldun pilo bat atera delarik horientzako lanposturik ez dago.

ezinez dabilen jendea, erdaldun jaio eta erdaratik mugitu ere egin ez den jendea eta abar.

Gero beste mundua erabilpenarena da. Horren azterketa zehatzek egin behar ditugu, neurketa egokiak eginaz, eta ez norberak erabiltzen duela uste duenaren arauera ezertu. Horrela ikusten ahal dira hizkuntza batek betetzen dituen espazioak.

Soziolinguistikan hain ezagunak diren galdera horiek, beraz: hizkuntza baten mekanismoak zeintzuk dira eta mekanismo horiek nola funtzionatzen duten espazio bakoitzean, espazio geografikoetan, espazio sozialetan, hizkuntzaren erabilpen egoki bat zenbateraino ematen den espazio horietan, nola funtzionatzen duten adinaren arauera, nola funtzionatzen duten giro desberdinetan...

Hirugarren mundua, azterketa horretan, zerak osatzen du: hizkuntza batekiko dauden eritzi, jarrera, giro, motibapen, loturak, identifikazioak, onarpena, estimua... Mekanismo guzti horiek ongi eza-gutu behar dira, hizkuntza horrentzako politika edo neurri sail bat burutzera-koan.

L.— Motibazioaren mundu horretaz ze nolako susmo edo eritziak dituzue?

I.L.— Txepetxek noizbait aipatu izan du hau ere, ez dakit idatzia duen, gure hizkuntz egoeraren eta trajediaren korapiloa zera dela: hizkuntza ezagutzen duen jendea ez dago motibatuta, ez du istimaziorik hizkuntzarekiko, eta motiba-

tuta dagoen jendeak ez du hizkuntzarik ezagutzen. Hizkuntza biziko bada berriz ezagupenak eta motibazioak elkarrekin joan behar dutenez, hori ez da horrela suertatzen gure artean.

L.— Diagnostisarekin aurrera jarrai dezagun. Sintomekin hasi gaitezen.

I.L.— Sintoma nabarmenen artean lehendabizi zera jarriko genuke, euskaraz besterik ez dakien euskaldunik ez dela jadanik Euskal Herrian. Hizkuntz sustituzio prozesu batean gertatzen den lehen urrats hori, hizkuntza minorizatu bateko jendeak bestea ikastea, hori burutu da. Denok dakigu erdaraz, eta tutik ez zekien kasta ahitu da.

Alderantziz, erdara besterik ez dakien jendea gehiengo da, ehuneko 75 edo. Ezagupide aldetik, beraz, sustituzio prozesuaren etapak aurrera doaz.

Beste sintoma, nahiko nabarmena: lurralderik eza. Zer gertatzen da? Euskarak ez dauka nagusi deneko lurgunek propio bat, eta gaur egun Euskal Herrian inon ez da posible eguneko hogeitalau orduetan euskaraz bizitzea.

Baina beste espazioei ere begiratu behar zaie. Espazio sozialen mailan, laneko mundua, irakaskuntza, administraritza, zerbitzuak... hor sustituzioa nabarmena da. Lehenbiziko industrigintza heldu zenean euskaraz egiten zuen euskaldunak, baina industrigintza modernoa iritsi zenean bere hizkuntza inposatu zuen, guztiz. Laneko mundua da erdaldunenetakoa. Sektoreren batzuk, egurrarena-eta, hizkuntzari lotuxeagoak daude oraindik, baina gehienbat erdara hutsez funtzionatzen da lantegietan.

Gero mundu sinbolikoa dago. Astekari bakarra, egunkaririk ez, liburu eta diska-gintzaren murriztasuna denok ezagutzen dugu, produzio zientifikoak erdaraz funtzionatzen du.

L.— Askotan entzun dizugu euskararen erreproduzio mekanismoak hutsegiten hasiak direla.

I.L.— Nabarmena da hori ere. Erreproduzio sozial horren elementu bat famili bidez egiten den transmisioa izaten da, eta konparatzen badugu guraso euskaldunak dituen zenbat seme-alabak euskara galtzen duen eta guraso erdaldunak dituen zenbatek ikasten, begibistakoa da euskararen irabaziak baino ugariagoak direla galerak. Izan ere, erdara (gaztelania edo frantsesa) Euskal Herriko haur guztiek ikasten dute. Ez bakarrik erdaldunen seme-alabek, guztiek ikasten du-

te. Horrela erreproduzio sozialaren mekanismoak erdararen alde funtzionatzen dute eta euskararen kontra.

Hiztunen iturririk garrantzikoena hori izaten dela jakina da, eta hori hutsegiten hasten denean hizkuntza baten etorkizuna zalantzan dago. Ondoren daude eskolak eta beste iturriak. Egia da pausorik nonbait eman bada eskoletan eman dela, lehenik ikastolak hedatuz eta azken urteotan beste eskoletan ere egin diren ahaleginekin. Baina horien emaitzak solfan jarri behar dira, erabiltzen diren eredu eta metodoek zer eman dezaketen ikuskizun dago.

Helduen alfabetatze eta euskalduntzea da beste erreproduzio mekanismo bat. Hor ere asko aurreratu da, pedagogian asko egin da, euskara menderatzea posible dela demostratu da, ez dela urteetako kontua. Baina horrek ere badu buelta: euskara ikasten dutenek gero erabili ezina izaten dutela.

Ikusten den bezala, hizkuntza batek bere iraupenerako dituen puntu neuralgiko guztiak pipiak jota dauzkagu. Sintoma guzti hauek pentsa erazten diote zenbait jenderi euskararen sustituzio prozesua itzuli ezinezko puntura iritsita dagoela, alarma seinale guztiak pizturik daudela alegia, eta euskara berreskuratzea ezinezkoa dela, emergentziarako plangintza bati dagozkion neurri garrantzak eta zehatzak hartzen ez badira.

L.— Duela zortzi bat urte SIADECO taldeak euskararen azterketa bat egin zuen, bere egoera eta aldatzeko posibilitateak aztertuz. Oker ez bagaude, han aurrera begira hiru hipotesi markatzen ziren, pesimista, erdikoa eta optimista. 1985ari begira idatzitako gauzak dira eta balantze bat egitea egoki letorke.

I.L.— Lan hari apropos ez genion ez prebisio edo pronostiko izenik ez eta Plangintza izenik eman nahi izan. Plangintza batetarako oinarriak baizik. Era honetan planteiatzen genuen gure lana: hipotesi batzuen arauera zer gerta daiteke 85erako? 75a zen gure abiapuntua, lana egiten berriz 77-78an ari ginen, eta bitartean baldintza batzuk beteko balira gertatuko zena, edo gerta zitekeena definitzea zen gure asmoa.

Zoritxarrez gaur egundik begiratuta guk esandakoak zer egin zitekeen eta zer egin ez den ikusteko balio du. Arazoari inork heldu ez ziolako. Momentuak ere ez ziren errezak, erakundeak sortzen ari zi-

ren, autonomia nola garatuko zen ere ez zen ikusten argi... kuestioa da inork ez ziola asuntoki heldu.

Gure planteiaketa egiteko, euskaldun-
goa ugaritzeko balio zuten iturrietara jo
genuen. Famili trasmisioa lehenik. Garai
hartako datua zen familia euskaldunetan
euskara %87-88 batean transmititzen zi-
tzaiela seme-alabei. Kanpaina etxekintza
batzuen bidez euskaldun familietan eus-
kara kontserbatze maila %90-92ra igo
zitekeela jotzen genuen. 100.000 eus-
kaldun gehiago emango zituen horrek
hamar urtetan.

Irakaskuntza munduan sartzen ginen
gero. Ikastolak ordura arte eramandako
hazkunde prozesua aztertu ondoren,
erritmo azkarra eraman zuten Gipuzkoa
eta Bizkairako erritmo mantsuago bat
kalkulatu genuen ondorengo urteetara-
ko, eta ikastolak lehen urratsak egiten
zituena Araba eta Nafarroarentzako errit-
mo biziago bat.

**L.— Eta honetan hipotesiak luze
suertatu dira.**

I.L.— Gure aldetik akatsik inportan-
teena zera izan zen, demografia aldetik ez
genuela aurrez kontutan izan jaiotzak
gutxituko zirenik, eta garai hartako jaiot-
za kopuruen tankerako zifrekin ibili gine-
la. Eta gertatu da jaiotzen kopurua ordu-
ko erdira etorri dela, gaur eskolara joaten
hasten diren haurrak ordukoen erdiak-
edo besterik ez dira. European holako zer-
bait gertatzen hasia zegoen, baina ez
zuten ematen hemen hain derrepente
sartuko zenik.

85erako ikastolako haurrak
100.000ra iritsiko zirela kalkulatu ge-
nuen, eta 80.000 eskas dabilta.

Beste ikastetxeetan ematen den eus-
kara ere hipotesi batzuen arauera azter-
tzen zen, eta aurrerapen asko egin den
arren, egindako prebisioak ez dira bete.
Behar bada euskara ematearen aldetik
beteko ziren, haurrei euskara A eredu-
an bederik ematen zaiela esaten da, baina 3
urtetan hasi eta 14 urte bitartean hain-
beste ordu emanaz haurrak euskaldun-
tzeko orduan guk jartzen genituen bal-
dintzak ez dira betetzen. Zoritxarrez za-
lantzen dago A eredu ematen den ikas-
tetxeetatik inor euskaldunurik ateratzen
denik.

**L.— Helduen Alfabetatze eta Eus-
kalduntzera iritsi gara. Hor hiru
hipotesi proposatzen zenituzten.**

I.L.— Hiru hipotesi, bai. Hipotesi mi-
nimoa: ikasten hasten direnetatik %60k

utzi egiten duela, eta beste %40 horietatik
erdia bakarrik euskalduntzen dela hiru
urtetan; beste erdia hurrengo
lau-bost-sei urteetan banatuko zen. Or-
duko sisteman, gau-eskoletan, sistema
haietan; orduan zen sortua AEK, gauzak
aldatu nahian-eta.

Erdiko hipotesia: %50 euskara ikasten
jarraitzen duena. Eta hipotesi maximoan
%60. Hipotesi horien arauera ateratzen
ziren hor ere kopuru ezberdinak.

Guztira, 75ean euskaldunak 630.000
inguru baldin baziren, 80rako 700.000

BE-eta sortu dira, eta gauzarik penaga-
rriena da bere fruituak ematen ari zen he-
rri inizatiba bat potentziatu beharrean
horri beste esperientzia bat kontrajartzea.
Hemen ez gaude lujo horietarako, era-
kunde berriak so itu gauza bera egiteko,
eta irakasleak, materialeak... lehengoak
izateko.

Bestalde, guzti honen azpian dagoen
koska nik honetan ikusten dut: ikasi bai,
baina zertarako? Irlandako kasuaren bel-
durra. Badirudi Irlandan gaelikoa mundu
guztiak ikasten duela, eskoletan ere ikasi



inguru izango zirela kalkulatu zen eta
85erako 900.000; hori hipotesi mini-
moan, eta ia milioia maximoan. Aldiz,
gaur egun euskaldunok 600-650.000
inguruan baldin bagara, bi zifren arteko
alde hori hola ulertu behar da gure ustez:
egin zitekeen gauza bat, eta izugarriko
diruketarik gabe gainera, egin gabe utzi
dela.

Gelditzen ziren urteetarako 17.000
milioi pezeta, 1978ko pezetak, gastatu
beharko zirela esaten genuen, eta aipatu
ditugun gauzak lotzen erabili. Baina
inork ez zion asunto horri heldu. Gero
ekintza puntualak egin dira, baina koor-
dinatutako plangintzarik ez da izan.

**L.— Aurrerakadarik eta utzikierarik
haundienak zertan eman direla irudi-
tzen zaizu?**

I.L.— Esfortzurik haundienak badirudi
eskola eta alfabetatze-euskalduntze
munduan eta komunikabideetan egin
dela. Eskola bidez haurrak euskalduntzea
dirudi dela gobernuaren aukera. Hel-
duen mailan berriz egin diren urratsak
oso inportanteak dira, gau-eskoletan eta
AEKn eman den prozesuan; gero HA-

beharrezkoa dela, edozein lanpostutan,
irakaskuntzan, administraritzan, jakin
behar dela, baina erabili ez duela inork
erabiltzen. Arazoa honetan dago: esko-
lan hizkuntza gai batzuetarako enfoka-
tzen baldin bada baina ez gero lagun-
tean eta eguneroko bizitzan erabiltzeko,
ikasketa alferrikakoa dela edo hizkuntza
museotara eramateko biderik egokiena.

**L.— Komunikabideetan aurrerabide
haundiak egin direla esan duzu lehen.**

I.L.— Horretan egin den urratsik ga-
rrantzizkoena telebistan eman da. Hiz-
kuntzak duen espazio sinboliko hori oso
garrantzizkoa da, eta hori betetzea, eus-
karaz hainbeste gai ikusi eta entzutea...
hizkuntzaren irudia aldatu egiten da.
Urratsik positiboena, bere akatsekin, er-
darazko informatiboak, erdarazko anun-
tziok, txapuzak...

Irratiari buruz ere berdin esan beharko
genuke, Euskadi Irratia hizkuntza aldetik
gustoa ematen du entzutea. Gertatzen
dena da Euskadi Irratia Donostiako irratia
bakarrik dela, bi hizkuntzetan ari diren
beste emisorak potentziatzen direlako,
elebitasun errearen izenean erdararen

Todo español tiene el deber de conocerlo y el derecho a usarlo . Ez dugu European beste Konstituziorik herritarrak hizkuntza bat jakitera behartzen dituenik

erabilpena potentziatuz.

Komunikabide sozialei di gokionez hutsurenik haundiena prentsan daukagu. Euskara hutsean dagoen astekari bat besterik ez daukagu. Badira, bai, beste zenbait aldizkari mota ezberdinetakoak. Baina euskarazko egunkaririk ez daukagu. Hainbat proiektu aurkeztu ondoren oraindik ez omen da aterako den esperantza haundirik. Bestalde, euskarazko egunkaria ezinbestekoa dugula esan behar da, egun osoan euskaraz bizitzeko euskarak espazio sinboliko horiek ere betetzeko.

Kontzientziatze kanpaina mailan berriz ezer gutxi egin da, eta lehen esan dugun kontraesanean murgilduta segitzen dugu, kontzientziadunek euskara jakin ez eta dakigunok kontzientziarik gabe. Trasmisiorako ze garrantzia duen pentsa.

Administraritzak publikoa da beste sail prolematiko bat. Euskararen normalizapenerako lege bat egin zen, baina administraritzak mogitu gabe jarraitzen du, eta izugarritzako inertzia dago, euskara sartzeko sekulako oztopoekin.

L.— Egin da beraz hainbat gauza, akats eta guzti baina urrats inportanteak. Eta hala ere euskaldunok orduan bezain minoria gara.

I.L.— Guzti honetan ikusten dudana akatsik haundiena planifikaziorik eza da. Plangintza eta programazio ikuspegi batekin ez da egin lana, eta inizatiba pun-

tualak ikusten dira, batzuetan baliotsuak ere bai, baina plangintza orokorrik ez da ikusten.

Errekurtsoen eta baliabideen eskasia askotan erabili izan da aitzakia bezala ezer ez egiteko. Irakaskuntza munduari buruz esate baterako hori esan digute, jenderik ez zegoela, eta urte gutxiren buruan suertatu da irakasle euskaldun pilo bat atera dela eta horientzako lanposturik ez dagoela. Jakina da haurren kopurua gutxitu delako gertatu dela hori.

Hor daude ezerezetik eraiki diren erakundeak ere. Ertzantza adibidez, bere kostu politiko eta ekonomiko izugarriekin, eta diru pila bat, pertsona pila bat... dena mobilizatu dute, eta atera egin dute. Horrek balio politiko haundia duela ez dut ukatuko. Errekurtsoen falta beste alorretan aipatzea nahiko arrazoi eskasa da. Gauza bat egiteko borondatea dagoenean eta lehentasunak markatzen direnean, lehentasuna ematen zaion horren inguruan indar guztiak biltzen dira eta aurrera ateratzen da.

L.— Gu bezala minorizatuen eredu ez mintza gaitzake, Israel, Irlanda, Katalunia, Quebec, Gales... Baina mila aldiz errepikatu diren gauzei errepaso emanen hasteak ez du merezi seguruenik.

I.L.— Ereduen prolematikatik irten egingo nintzateke. Eta beste nazioetan eman diren prozesuetatik ateratzen ditudan lezioak pare bat edo hiru bat dira. Bat zera litzateke, itzuliezinezko egoerarik ez dagoela, hizkuntza gertaera sozial batenez likidazioaren momentua iritsi denik inoiz ezin esan daitekeela, hilda dauden hizkuntzak ere piztu dituztelako. Hori herri baten nahiaren eta borondate politikoaren esku dagoela, baita hizkuntza oso hondatua dagoenean ere.

Soziolinguistikaren printzipio unibertsal horrek badu bere osagarria, eta da hizkuntz bat behin betirako galdutzat jo ezin daitekeen bezala ezin daitekeela betirako salbatua ere kontsideratu.

Ateratzen dudana beste ondorio bat, munduko beste esperientziak ikusirik, elebitasun sozialaren tranpa da. Garbi dago lurralde batean funtzio berak betetzeko, eginkizun berak betetzeko eta jende berak erabiltzeko bi hizkuntza izateak zentzurik ez duela eta horrek ez duela irauten. Elebitasun orekatu eta bake-tsuaen istorio hori kontu bat dela, hizkuntzen arteko harremanak sekula ez bait dira paketsuak eta gozoak, konfliktoz

beteak baizik, batak bestea jan egiten bait dute.

Izan ere, aipatu espazio linguistiko horiek betetzea da hizkuntza guztien helburua. Eta hizkuntza, gainera, abstrazio bqt besterik ez da, jokuan ez da hizkuntzaren arazoa egoten, hizkuntz komunitateena baino. Hizkuntzen artean berrOka egon behar du espazio berdinak eskuratzeko disputan daudelako. Elebitasuna elebarkartasun baten alde erabiltzen den mito bat da.

L.— Baina aberasgarria omen da mundu guztiak gutxienez bi hizkuntza menderatzea.


I.L.— Elebitasun soziala munduan zehar bazterrera utzia dago. Elebitasuna fenomeno indibidual gisa onartzen da. Pertsona batek nahi dituen hizkuntza guztiak jakin ditzazke baina lurralde batean hizkuntza bat da nagusi. Praktikan inon ez da gertatu elebitasunik eta teoriarik ere ezin da eman, trantsizio fenomeno bat delako, hizkuntza baten sustituzio prozesuaren barruan edo berreskuratzeko bidean.

Eta kanpoko esperientzietatik ikasi daitekeen hirugarren puntua aipatzeko, lurralde erizpidearen baliagarritauuna da. Toki askotan abiapuntua hori izan ez bada ere, helburua hori izan delako. Azkenean, soluzio horretara iristen ez den hizkuntza batek ez du irauteko nahiko garrantzia. Pertsona erizpidea erabili den lurraldeetan (edonork du nahi duen hizkuntza erabiltzeko eskubidea eta abar), hori azkenean gehienek alde batera utzi eta territorialitate erizpidera pasa direla: lurralde honetan hizkuntza ofizial eta printzipala hau da eta herritar bakoitzari, jakina, nahi duen hizkuntza erabiltzeko eskubidea garrantzitzen zaio.

Hiru ikasgai ateratzen ditut nik, beraz, besteen esperientzietatik: itzuliezinezko egoerarik ez dagoela, elebitasun iraunkorrik ez dela eta lurralde erizpidearen baliagarritasuna.

L.— Lezioa espainiarrek ikasi dute ongi. Estatu osoan territorialitate aplikatzen bait dute, gaztelaniaren mesedetan, noski.

I.L.— Espainiako Konstituzioa lurralde erizpidea baino urrutirago doala esango nuke. Lurralde erizpidearen arauera esan beharko luke Espainiako Estatuan gaztelania dela hizkuntz ofiziala, baina ez, esaten duen bezala, herritar guztiak jakin behar dutenik. « Todo español tiene el



Gure egoeraren korapiloa zera da: euskara ezagutzen duen jendea ez dago motibatua, ez du istimatzen, eta motibatua dagoen jendeak ez du hizkuntza ezagutzen.

deber de conocerlo y el derecho a usarlo».

Ez dago European beste konstituziorik herritarrek hizkuntza bat jakitera behartzen dituenik. Eta konstituzioa baldin bada herritarren berdintasun karta, 3. artikulua hori antikonstituzionala dela esango genuke. Konstituzioaren artikulua horren tranpa salatu beharra dago. Izan ere, subordinazio printzipioak funtzionatzen bait du. Politika mailan subordinazioak funtzionatzen du: komunitate autonomoak Madrilgo gobernuaren mende daude eta abar.

Baina subordinazio hori hizkuntz komunitateei ere aplikatu zaie, komunitate bate beste baten mende geratzen da. Eta horrela, pikutara doa hizkuntzen arteko berdintasuna, pertsonen arteko berdintasuna eta dena.

Horren aurrean bere garaian erreklamazioa egin zuen erakunde bakarra Euskaltzaindia izan zen, Konstituzioa onartu baino hilabete batzu lehenago. Hizkuntzen arteko desberdintasun hori onartzea urteetan zehar erabili den diskriminazio politika baten konsagratzea litzatekeela salatu zuen Euskaltzaindiak. Egia esan surrealista dirudi: antidemokratikoa zen garai bateko joera bat demokraziaren izenean kontsagratuta geratzea. Eta hor zepo batean harrapatuta gaude.

Lege hori sustraitik aldatu gabe edo berdin dena esanaz, subordinazio printzipioa aldatzen ez den bitartean horrek ez du soluziorik, ez soluzio teorikorik eta ez praktikorik.

Hala ere, eta Txepetxek hori oso ongi zehaztua dauka, soluzio hori ematen ez den bitartean, nola funtzionatu da arazoa. Berak orduan esaten duena zera da: hizkuntz komunitate bati, lege horren testuinguruan bizi den artean, horren baldintzetatik abertzeko ez zaio beste irtenbiderik geratzen bere kabuz nahikoa balitz bezala funtzionatzea baino. Praxis batek gainditu behar du legearen testuinguru bera, lege horiek ipintzen dizkiguten traba horiek ez baleude bezala, erdaraz esaten zuen «funcionar como si fuéramos suficientes», hori litzateke testuinguru aldatzeko bide bakarra.

L.— Legearen oztopoak ez baleude bezala jokatzeko diozu, eta azken finean guztiok gabilta horrela. Esan nahi dut, gure gizarte honetan normala ez den era batean funtzionatuz ateratzen direla aurrera euskal kulturako lanik haundienak. Baina hori teoria mailara igotzea ez al da aberrazio bat? Funtzionatu ezazu lege fisikorik ez balego bezala. Zerorrek esan duzu lehentxoago, azken urteotan 17.000 milioi gastatu izan balira askoz ere egoera hobea batean biziko zela euskara.

J.L.— Agian ez dugu oso garbi utzi gauza. Ez dugu legerik ez balego bezala funtzionatuko, funtzionatuko dugu nahikoa bagina bezala. Alegia, funtzionatu behar dugu lurralde erizpidea aplikatuz, elebitasunaren tranpan erori gabe eta nolabait gure komunitate linguitiko hau orokorra balitz bezala, egun osoan eta loku guztietan. Legeak baldintzatzen gaitu, eta horren kontra etengabeko borroka egin behar dugu, agian beste hizkuntz komunitateekin konstituzioa aldatzeko prozesu luze batean sartu beharko genuke.

Baina funtzionatu dezagun eskuartein daukaguna nahikoa balitz bezala. Txepetxek eritzi hori hobeki zehaztuko dut. Hemen ditugu batetik lurraldea eta bestetik hizkuntz komunitatea. Ez dagokio hizkuntzari lurraldea, lurraldea komunitate linguistikoa dagokio. Eta hizkuntz komunitate batek, lurralde osoa, guztiz konpaktoa behar du, hizkuntz komunitate horrek dituen behar guztiei hizkuntza horretan erantzun ahal izateko. Gure kasuan lurralde hori Euskal Herri osoa da, ez zati bat bakarrik.

Asuntua zera da orduan: bizi gaitezen errealtatean hori bagina bezala, lurralde konpakto bat bezala eta komunitate linguistikoa oso bat bagina bezala. Horrela lortuko dugu nolabait komunitate horri zor zaion lurraldetasun horren kontzientzia.

Euskarak ez dauka nagusi deneko lurgune propio bat, eta gaur egun Euskal Herrian inon ez da posible eguneko 24 orduetan euskaraz bizitzea

tzia esnatzea eta lurralde konpakto hori eraikitzea, praxi batean lehenik eta lege mailan gero aldatu eraztea.

L.— Hori ez al da kulturalismo baten izenean ilunegi edo konplikatuegi ikusten den irtenbide politiko bati zeharka alde egin nahi izatea?

I.L.— Ez dut uste. Txepetek hori nazio kontzientzia batekin lotzen du, kontzientzia horren elementurik funtsezkoenen artean hizkuntza jarriaz. Hizkuntz komunitate horrek bere naziotasunaren kontzientzia lukeen neurrian erreibindikatu luke lurralde bat, naziotasunarekin eta subiranotasun politikoarekin lotua noski.

Nere ustez azierto bat dago horretan Txepetxen aldetik: gaur egun hizkuntz komunitateak duen lurralde zatikatu hori berreskuratu ahal izateko, berreraikitzeke, bide bat izan daitekeela. Ikuspegi soziolinguistiko batetik ikusita oso planteamentu inportantea da. Ikusiko dugu, dena dela, hitzaldi bat izan zena liburu batean hobeto formulatzen duenean zertan geratzen den.

L.— Hizkuntza batentzako itzuli ezinezko egoerarik ez dagoela esan duzu lehen, baina politegi dirudi horrek. Definitu beharko dugu puntu bat zein

naren atzetik oso inprobablea izango bait den atzera itzultzea. Egoera espezionalen batean agian bai, juduen kasuan esate baterako, baina normalean oso inprobable. Bestela batek baino gehiagok berehala esango digute « lasai, mutilak, beti zeukeagu denbora asuntuari buelta emateko ».

I.L.— Bai, matiz oso inportantea da eta esan beharrekoa. Itzuli ezinezko egoerarik ez dagoela esatean azaldu nahi nuen horiek prozesu dinamikoak direla eta ez daudela inoiz finkatuta behin betirako. Dударik gabe badaude egoerak itzuliezinezkoak edo hizkuntza batek bestea jan eta likidatu eta sustituzio prozesua guztiz burututa geratzen diren egoerak. Ikusi besterik ez dago zer gertatu den latinarekin, edo hurbilago etorrita, Espainiako Estatuan egon den zenbait hizkuntzarekin. Euskararen kasuan, ezaguna da Akitanian mintzatzen zela eta Kataluniaraino iristen zela. Hor hizkuntza berreskuratzeke posibilitateak teoriarik beti egongo dira, baina praktikan probabilitateak minimoak lirateke.

Gure kasuan, lehen aipatzen genituen sintoma horiek aurrerago joango balira, euskara ere itzuliezinezko edo itzultzea oso zaila den egoera batera iritsi daiteke, eta denbora asko baino lehen.

L.— Lehendabiziko etapa burutua dago, beraz, lehen esan duzun bezala, eta Konstituzio espainiarrak sagaratu gainera: ez da izanen gehiago euskaldunik erdaraz ez dakienik. Zein izanen da hurrengo urratsa?

I.L.— Lehendabiziko fasea zera izaten da: bi hizkuntza elkarrekin daudenean, A-Euskara, eta B-Erdara, A dakiteneke poliki B hizkuntza ikastera iristen dira, guztiak. Elebiduntzearen fasea deituko genioke, baina alde bakarrekoa bakarrik elebiduntzen da, euskalduna, erdaldunik ez.

Bigarren fasea zera da, bi hizkuntza dakien jende horrek, B hizkuntza nagusi den testuinguru batean, piskanaka beharrezko ez zaiona uzten joaten da. Kasu honetan, euskara superfluo bihurtzen da. Eta elebakartasuneruntz goaz, B nagusituz.

Badirudi prozesu hori gure artean etengabe doala, eta orain egoera alde horretatik duela hamar urte baino larriagoa da, nahiz eta erreuperazio sintoma batzuk ere egon. Berrogei urtez euskarekin egon den errepresio basati hura bukatu bada ere, trantsizio prozesu hone-

tan, Konstituzioarekin, elebitasunari buruz egin diren dekretuekin eta abar, azkenean era zibilizatuago batean bada ere hizkuntzaren sustituzio prozesua laguntzen ari da berdin edo indar gehiagorekin. Alderdi horretatik, egiten diren lege guztiak gaztelania laguntzeko dira, beti gaztelania salbu. Eta gauza bera Frantziako Estatuaren aldetik frantsesarekiko.

Askotan euskara beharrezko ezartzeaz beldurti samar sentitzen gara, eta ez gara konturatzen gaur egun sustituzio prozesuari dagoen alor guztietan espazio berriak irabazten ari dela gaztelania. Izan ere hemen funtzionatzen ari diren hizkuntz plangintza bakarrak gaztelaniarena eta frantsesarena dira. Ez dute plana idatzia edukiko agian, baina ez irakaskuntzan, ez administraritzan eta ez ezertan, ez die ezerk alde egiten beren hizkuntza bultzatzerakoan.

L.— Askotan aipatzen dena da espazio edo guneena. Eta esplikatzek meheziko luke.

I.L.— Txepetek sei funtzio edo espazio bereizten ditu. Lehenik identitate funtzioa edo barne hizkuntzarena. Gero funtzio intimoa, hurbilekoa, familia eta lagunartekoa. Hirugarren laneko funtzioa dator, funtzio profesionala. Gero auzo edo herriak osatzen dutena, lurralde mailako funtzioa dator. Gero nazio mailakoa eta azkenik nazioarteko eta zibilizazio mailako espazioak. Orduan ikusi behar da sei espazio horietatik euskarak zenbat betetzen dituen. Eta egia zera da: erdararen indarra progresiboki sendotzen ari dela.

Izan ere, euskara nagusi da jadanik ez administralgo eta ez lantegietan bakarrik. Gure herrietako plazetan, kaleetan, ostatuatan, erosketan... nagusitzen ari da. Eta beti euskaraz bete diren funtzioak ere erdaraz egiten hasiak daude. Baita herri txikietan ere. Hemen Itsasondon adibidez askoz gehiago egiten da erdaraz duela hamar urte baino. Oraintsu egin den inkesta baten arabera, hogeitabost urtez gorakoek euskaraz funtzionatzen dute; hogeitik hogeitabost urte artekoek batez ere euskaraz, eta erdaraz ere bai; eta hogeiki eta hamabost urte artekoek gehiena, guztiz ez esatearren, erdaraz. Erdara sekula iritsi ez zen zokoetaraino sartu da gaur egun, seme-alaba euskaldunek etxean gurasoekin erdaraz parra-parra hitzegitera. Hori ez zen inoiz ezagutu orain arte.



L.— Baina zu ez zara azken urteotan ezer ez dela aldatu uste duten horietakoa, eta zerbait baino gehiago ere egin da.

I.L.— Azken hamar urteotan, besteak beste, kontzientzia hartze garrantzizko bat egon da, teoria mailan jantzi egin gara, zenbait arrazoinbide eta tranpataz konturatu egin gara, eta bestalde zenbait alorretan lan serioa egin da, irakaskuntza munduan, gaueskolen eta berreuskalduntzeko prozesoa, eta abar, oso gauza inportanteak egin dira. Inoiz ez da horrenbeste idatzi euskaraz, ez da hainbeste irakurri, ez du inoiz hainbeste jende ikasi euskara, ez da inoiz hainbeste jende prestatu egon. Benetan inportantea da hemen egin den giza inbertsioa. Euskararentzako kapital intelektual oso baliozkoa dago, jende oso ona, Euskal Herriak inoiz izan ez duena

Baina hori guztia, indar erlazioetan jarrita oso eskasa da. Sustutuzio prozesoa aurrera doa, eta aurrera segiko du neurri

askoz zorrotzagoak hartzen ez diren bitartean.

L.— Beraz, elkarrizketa honi jarriko bagenio izenburuzat «Azken hamar urteotan euskaraz atzera egin du», egokia al litzateke?

I.L.— Bai eta ez. Esan beharko genuke sustutuzio prozesoa aurrera egin duela, eta berreskuratze prozesoa ere neurri batean aurrera egin duela. «Sustutuzio prozesoa ez da gelditu» esan beharko genuke; berreskuratze prozesoa ere martxan jartzen ari da, pentsa zein indar eskasekin, eta gainera horri bultzeta eta indarra emateko partez oztopo eta traba pila batekin aurkitzen dela.

L.— Euskararen hondamendirako joera hori iraultzeko ze medio eta tresna erabili beharko genituzkeenari heldu beharko diogu.

I.L.— Badakigu erremedio mirakuluzkorik ez dagoenla. Baina egia bada, lehen esan dugun bezala, sustutuzio prozesoren alarma seinale guztiak pizturik dau-

dela, emerjen-tziako egoera baten aurrean gaudela ezin uka. Eta emerjentziako egoera baten aurrean emerjentziako neurriak hartu behar dira.

Adibide bat besterik ez jartzearren. Hemen azken uholdeak izan zirenean mobilizazio orokor bat izan zen larritasunezko egoera hartatik lehenbait lehen irteteko, mogitu ziren Erakunde ofizial guztiak (Gobernu, Diputazio, Udal, e.a.). Herri erakunde gehienak, eta batez ere herritarren gehiengoa, bakoitzak ahal zuena egiteko. Azkenik laneko irabazietatik egun bateko soldata ere eskatu zuten asmo horrekin.

Eta halere guzti hori ez zen nahikoa izan zenbait lantegi eta enpresak burua altxatzeko eta zenbait zonatako lantegiak betiko lurjota gelditu ziren. Orain berriro ZUR eta beste zenbait planekin ekin diote batez ere zenbait sektore salbatu nahirik. Euskararekiko, aldiz, nahiz eta uholde iraunkor baten azpian egon, ez da horrelako planteamendurik egiten, ezta hurrik eman ere. Badakigu ez dela berdina, herritarrek euskalduntze prozesu luze bat izan beharko duela. Horregatik, hizkuntz komunitate batek iraun dezan eta normaltasunera iritsi dadin zein baldintza minimo behar diren aipatu beharko genuke.

Lehenbiziko neurrietako bat, bizitza osoa eta egunaren 24 orduetan bizitzako aitor guztietan euskaraz funtzionatzea lortzea, hizkuntz komunitate osoa izatea. Ez bakarrik famili eta lagunarte giroa, gure gizarte bizitza osoa euskaraz egiteko ahalmena: prentsa, zinema, kultura bezala beste alorretan gure hizkuntzan egiteko ahalmena. Horren sustraian legoke lehen aipatu dugun Txepetxen «nucleo pensante» hori, hizkuntza propio horretan produzituko duen jende bat egotea, mundua ulertzeko bere era propioa edukitzea.

Horren parean jarriko nuke nik lurralde konpakto baten beharra. Zenbat kilometro karratu behar diren, edo zenbat hiztun, ezin da esan. Baina euskarak behar du lurgune bat non ez preziso hizkuntza bakarra baina bai nagusia izango dena. Txepetxek esaten duen legez, euskal hiztun komunitateari lurralde bat zor zaio, horretarako eskubidea duelako. Prozesu luze bat izanen da, baina normalizazio bide batean baldintza horiek utziezinezkoak dira. Hori gabe gerta daiteke maximotozat jotzea hizkuntza batentzat minimoetara ere iristen ez direnak. Hori da

Euskararen puntu neuralgiko guztiak pipiak jota eukitzeak pentsa erazten dio zenbaiti sustutuzio prozesoa itzuliezinezko puntura iritsi dela, emerjentziatzko neurriak hartzen ez badira

gaurko legeekin gertatzen dena: hizkuntzak behar dituen minimoetara iristen.

L.— Lurgune hori aipatzean ez dakigu juxtu zertaz ari zaren, Gipuzkoaz, edo eskualde zehatz batez edo... Eta horrekin batera, euskararen erreserba planteiatzen ote den ere pentsa liteke.

I.L.— Hizkuntz komunitate batek lurralde konpakto bat behar duela esatean, euskal komunitateak nazio bat osatzen duela esaten dugunean bezala, ni zazpi probintzietan pentsatzen ari naiz. Orain, horrera iristeko, nahikoa bagina bezala funtzionatzen hasi behar dugu; eta dagoen honetan oinarrituz abiatu beharko genuke, gaurko zonalde euskaldunean oinarrituz. Noski, ikastolak eta gau-eskolak zonalde guztietan hedatzen ari diren neurrian berreskuratze prozesoren puntutxo batzuk sortzen ari dira. Baina gaur euskara erabiltzen den zonalde konpakto bat egitea beharrezkoa zaio hizkuntzari, zazpi probintzietara iritsi ahal izateko.

Argi dago jokabide ezberdinak eraman behar direla leku erdaldunduberrietan, aspaldi erdaldunduetan, nahiko euskaldunetan, etabar. Baina esan behar da zonalde erdaldunduak berréuskalduntzeko prozesorik ezin daitekeela eman aldamenean lurralde konpakto batean

osoki euskaraz funtzionatzeko prozesoa martxan ez badago.

L.— Behin baino gehiagotan planteiatu da ea ze ondorio ekarriko lukeen euskara bakarrik erabiliko luketen komunitate batzuk sortzeak.

I.L.— Hartu dezagun Tolosaldea, Gipuzkoari mugatuz, esate baterako, bere gehiengoaren euskaltasuna kontutan hartuta, edo beste hainbeste esan genezake Urolaldeaz edo neurri apalago batean Goierriaz. Eta horietan osoki euskaraz funtzionatu daitekeela pentsatu, euskararen erosioa oraindik erabatekoa ez delako, administraritzan bezala irakaskuntzan dagoen jendea dagoelako. Hor jarri beharko genituzke euskaraz bakarrik funtzionatuko lukeen bankuak, zenbait denda, zenbait lagunarte, elkarteak, udal bizitza eta irakaskuntza zer esanik ez...

Une honetan hizkuntz normalizapen baten posibilitatea hain zail egiten da batetik hizkuntza bera normalizatu gabe dagoelako, alor eta espazio askotan hizkuntza egokitu gabe dago, eta bestetik erabilpena bera alor askotan likidatuta dagoelako. Normalizazio hori posible dela demonstratu behar dugu, ikastoletan egin den bezala adibidez.

L.— Hizkuntz normalizazioaren bidean oinarri zazpi probintzietako zonalde euskalduna aipatzen duzu. Eta hor egituraketa politikoarekin egiten dugu topo: hiru probintzia hartzen dituen marko bat, beste bat hartzen duena ondoan, eta mugaz bestaldekoak egituratu gabe. Soziolinguistika aldetik definitu al liteke normalizapenerako marko politiko minimo bat, ala hori gabe ere posible da? Hegoaldean urte batzuek egin ditugu marko bikoitz hori frogatzen eta balantzea egiteko garaia ere bada.

I.L.— Gaur dagoen bezala zatikatuta egonik, marko minimorik ez dagoela nahiko garbi dago. Zazpi probintzientzako egon beharko luketen lotura minimo horiek ez daudelako.

Soziolinguistikak marko juridiko eta legal bat eskatu badezake, horrek lurralde printzipioaren onarpenean oinarritu beharko luke, hizkuntz komunitate baten iraupenerako ezinbestekoa delako. Ez zaio printzipio hori onartzen euskal hiztun komunitateari, Estatutoarekin bizi garenok gehienez eskubide indibiduala ezagutzen zaigu, erabiltzeko eta ikasteko, eta Nafarroa eta Iparraldean ezta hori ere. Minimoen azpitik ari gara.

L.— Nola edo hala hiru probintziatako autonomi Estatutoaren aurkako ondorio batera iristek gauzak bortxatze itxura eman lezake, agian, marko politiko eta juridikoarena hainbeste azpimarratu nahiak. Baina arazoa ez da txantxetakoa. Izan ere, hainbeste aldiz aipatzen duzun hizkuntz komunitatearen oinarria zazpi probintzietan hedatua dagoen zonalde euskaldunetan jartzeko partez, baldintza politikoengatik, luzera begira Euskal Herria artikulatzeko bidean hasteko posibilitateak hiru probintzietan omen daudenez, hizkuntz eta politik komunitatea horietan egin, gero irradiatuz joateko. Hiru probintziaren autonomiarekin hasi, gero Nafarroarekin eta Iparraldearekin segitzeko.


I.L.— Hizkuntz komunitateari dago-kionez, gaurko marko politikoetara ezin da errenditu. Gaur bizi den erasoarekin eta sustutuzio prozesorekin, bere osotasunean hartu behar da hizkuntz komunitatea, eta hiru etapatan ezin dugu zatitu Iparraldeko, Nafarroako eta beste hiru probintzietako euskaldungoa. Muga politikoak ez datoz bat hizkuntzaren errealtatearekin.

Noski, faseak egin beharko dira, lekuen arauera, Zuberoan eta Enkarerrietan ez duzu berdin jokatu, baina Zuberoa ezin da ez dakit zein fasetarako utzi, momentu honetan eta urte gutxitan berealdiko krisi batean sartu delako.

L.— Euskararen normalizazio prozesuan gauza bat badago besteen artean delikatua, etorkinen arazoa da. Posible al da horiek integratzea, eta posible al da gaur bizi ditugun baldintzetan?

I.L.— Puntu hau Tolosako enpresetako langileen ordezkariarekin egin genuen bilera batean oso ondo adierazi zuen Lluís Aracil-ek. Berak esplikatzeko du nola etorkinek geografikoki gure artera inmigratu duten, baina jende hori ez da inmigratu euskal hizkuntz komunitatera. Eta hizkuntz inmigrazioa ez da izan, behar ez zutelako, ordurako erdarak espazio pilo bat beteak zituelako: eskola, lana, administraritzara... Horregatik ez dute ikasi euskararik.

Hori nahikoa ez balitz, bertako jendea gure lurreen arrotz gertatu garelako. Okerago dena, zenbait euskaldun emigrante bihurtu da, bere lurraldetik mogitu gabe erdaldunduz. Euskarara inmigratu ez zuen erdaldun pila baten etorrerarekin



Gazteak eta heldutasunera iristen ari direnak euskalduntzeko esfortzurik egiten ez bada, umeak ere euskalduntzen ditugun neurrian gaztarora iristean prozesuak erdaldunduko ditu.

eta euskaldun askok erdarara emigratuz, lehen pausatuagoa zen erdalduntze prozesoa asko azkartu zen. Ez da ahaztu behar, gainera, urte bolada ero bat pasatu dugula, herrien eta industrien hazkunde irrazional batekin, asko pilatuz baina gehienbat kalitate eta etorkizun gutxiko gauzetan, eta orain krisiarekin ari gara horren faktura ordaintzen.

Esan behar da lehen honunza etortzen zen kanpotar baten haurrak euskaldun sentitzen zirela, eta orain aldiz inmigrazio masibo baten ondorioz iritsi diren andaluz, galego, extremeño eta kastilanoen haurrak espainol sentitu dira. Jende horrek hemen espainol kontzientzia hartze hori ez da kasualitatea, muntai gaiztoa da, nekazal mundutik industriara pasa behar zutenak merkantzia bezala erabiliz. Integrazio prozesu bat emateko baldintzarik txarrenak dira.

Orain ari gara ordaintzen lan gaizto horien faktura, hainbeste urtez gure artean edo ondoan ditugunak oso aparte jarraitzen dutela ikusten dugunean. Hizkuntz erreproduzio mekanismo guztiak euskararen aurka daude orain.

Krisi ekonomikoarekin, dena dela, baldintzak puska bat aldatzen dira. Inmi-

grazioa moztu da, eta lehen ez bezala etorkin askori lehendabiziko aldiz planteatzen zaio aukera: hemen geratu eta bertako projektoren batean integratu edo sorlekura itzuli ala hemen zentralista eta estalista interesen defentsan jokatzea. Baldintza berri hauekin jende hori nazio proiektu batean enbarkatzeko eta aldi berean hizkuntz komunitate batetan integratzeko ahalmenik dugun erakusteko aukera daukagu.

L.— Zaila dirudi alboan dugun hainako erdanldun masa euskaldundu ahal izatea bizi ditugun baldintzetan. Horregatik, helduen berreuskalduntzetik gauza haundiegirik espero ezin daitekeelako, bideratuko zuten hiru probintzietako erakunde autonomoek beren esfortzu nagusia eskoletan haurrak euskalduntze aldera.

I.L.— Demografi arazoak askotan ahaztu egiten dira, eta hizkuntzen arazoetan oinarria hiztunetan dagoenez, demografi piramideei ongi erreparatu beharra dago. Eta zer gertatzen da Euskal Herrian?

Begira, hizkuntzen erreproduzio mekanismoek egiten dute posible haurrek hizkuntza hori ikastea. Eta historian zehar ezagutu den piramide bat (haur asko, heldu gutxiago eta zahar gutxi, benetako piramidea) alderantzizko bihurtzen bada, hau da, zahar asko, heldu gehiegirik ez eta haur gutxi, hizkuntz minorizatueta fenomeno berezi bat gertatzen da.

Euskal Herrian jaiotzen kopurua jaitxi da oso urte gutxitan, 1978tik 1982ra. Eta gure adin piramidea ronbo baten itxura hartzen hasi da, eta martxa honetan piramide irauli baten itxura hartuko du. Orduan, noren esku dago euskararen erreproduzio sozialaren arazoa? Haurrak eskola bidez euskaldundu nahia justifika liteke haurren kopurua zabala denean. Haurrak gutxitzen hasten diren neurrian, eskoletan matrikulak gutxitzen ari dira. Beraz, haurrek euskaraz ikasteagatik gure gizartea euskalduntzeko duten indarra asko murrizten da, eta horietan jartzen badugu berreuskalduntzeko indar bakarra, helburua lortzeko bideak isten ari gara. Heldu eta gazteek, gehiengoak direnez, erdaraz funtzionatzen segitzen duten neurrian beste indar hori absorbitzen dutelako.

Demografiari begiraturaz, beraz, beren ugaritasunagatik etorkizunean hainbestetainoko garrantzia duten gazte eta heldutasunera iristen ari direnak euskal-

duntzeko esfortzurik egiten ez bada, orduan betiko prozesua beti zera izango da: euskaldun jendea zahartuz eta ahituz joango dira, helduak erdaldunak direnez haurrak ere jatorriz erdaldunak etorriko direla eta umeak euskalduntzen ditugun neurrian gaztarora eta helduarora iristean prozesuak erdaldundu egiten dituela. Belaunaldirik sendoenak gazteen artean baditugu, horiek euskalduntzen saiatu behar dugu, horiek dutelako famili transmisioz erreproduzitzeko ahalmena.

L.— Euskaraz 40.000 lagun inguru ari direla ikasten esan ohi da, baina ez dirudi aski denik. Egin al liteke kalkulo bat urtean zenbat euskaldunberri egin beharko liratekeenaz, orain arteko prozesuari buelta emateko?

I.L.— Kalkulo zehatzik ez dut ikusi orain artean. Asuntua hor ere zera da: helduen euskalduntze eta alfabetatzeak euskararen ezagutza bat garantizatzen du, baina beste mundu bat da ikasitakoa erabiltzearena. Ikaste eta erabiltze munduak lotzeko bidea, gramatikari baino gehiago erabiltzeari eta eguneroko bizitzari garrantzia ematea, herriarekin harremanetan ikastea, hori behar-beharrezkoa iruditzen zait. Azkenean horrekin bait dator tendentzia aldatzeko posibilitatea: biak lotzen ez badira ezinezkoa da hizkuntza baten berreskuratze prozesoa.

Orain, zenbaterik ikasi beharko luke gaurko zifretatik goraka egiteko? Lehen aipatu dugu duela zortzi urte guk egingdako azterketa hura. Eta han esaten genuen transmisioan indar eginaz, erabilpena bultzatuz, eskolan baldintza batzuk ezarri eta euskalduntzen ari ziren zifrak kontutan harturik, hamar urtean 250.000 euskaldun gehiago aterako zela. Pentsa euskara ikasten aritzen direnak urtean 100.000 balira, zifra hori doblatu egingen litzateke.

Guzti honek ondorio batetara narama: dena plangintza orokor batean lotu beharra. Kontutan hartu behar da euskaldun kopurua gehiagotzeko faktoreak zein diren: iturriak zein diren, flujoak zeintzuk diren eta nola funtzionatzen duten... Pronostikoak egiten aritzea baino askoz ere serioagoa litzateke plangintza serio bat egitea: helburuak markatu eta bideak planifikatu, epeak markatu, lehentasunak, eta batez ere plangintza horrentzako errekurtsu batzuk ipini, pertsonalezkoak bezala diruzkoak. Prolemari seriotasunez ez heldu nahia da beste guztia.